

maskarak

23

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOA

Gida hau **maskara kirurgikoei** eta **partikulen** eta **aerosol likidoen maskara autoiragazleei** (FFP) buruzkoa da.

Norbera babesteko ekipamenduak (NBE) dira. Gai kutsatzaileek arnasbideetan duten eraginetik babestea dute helburu.

Material iragazlez eginda daude erabat, eta sudurrerako klip edo egokigailu bat eta eusteko goma edo zintak dituzte. Arnasa botatzeko balbulak ere izaten dituzte kasu batzuetan.

LOTUTAKO ARRISKU NAGUSIAK

Mota honetako maskarak gomendatzen dira honelako partikula eta aerosol likidoen aurrean langilearen arnasa babesteko:

- Hautsa.
- Agente biologikoak.
- Zitostatikoak eta bestelako farmako arriskutsuak.

Ez du babesten gasen eta lurrun kimikoen aurrean.

MASKARA-MOTAK

MASKARA KIRURGIKOA

- **BESTEAK BABESTEN DITU:** erabiltzaileak arnasketan JAULKITAKO partikulak iragazten ditu, kanpora heltzea eragotziz.
- **ERABILTZAILEA BABESTEN DU** fluido biologikoen ziprztinetatik.



FPP ERAGINKORTASUN HANDIKO MASKARA

- **ERABILTZAILA BABESTEN DU:** ingurumenean dauden partikulak eta aerosol likidoak iragazten ditu, eta hala, ez du uzten erabiltzaileak horiek ARNASTEN.
- Funtzioaren arabera, honelakoa izan daiteke: konikoa, horizontala (ahate-moko) eta bertikala.
- 3 mota daude: 1, 2 edo 3 motak. Kutsatzailearen toxikotasunaren arabera eta eguratseko kontzentrazioaren arabera erabakitzen da zein erabili:
 - FFP1 (% 78ko iragazpen efikazia, 4 IMB –ingurumen muga-balio– arte).
 - FFP2 (% 92ko iragazpen efikazia, 12 IMB arte).
 - FFP3 (% 98ko iragazpen efikazia 50 IMB arte).
- Arnasa hartzeko balbula izan dezake, ala ez. Balbulak arnasten laguntzen du, eta kondentsazioa saihesten du. Balbulak dauzkaten maskarak denbora luzez erabiltzeko gomendatzen dira. Ez dute iragazten botatako airea, eta, beraz, PAZIENTEEI EZ ZAIZKIE JARRI BEHAR.



FFP2 HORIZONTALA (ahate-mokoa)
airea botatzeko balbularik gabe



FFP2 BERTIKALA
(airea botatzeko balbularekin)



FFP2 HORIZONTALA (ahate-mokoa)
airea botatzeko balbularekin

PREBENTZIO-NEURRIAK

- Arriskuaren arabera egokiena den maskara erabili (ikus 1, taula).
- Eskuak garbitu behar dira maskara erabili aurretik eta ondoren.
- Maskara jarri behar da kutsatutako gunean sartu aurretik, eta kanpora irtendakoan kendu behar da.
- Maskara behar bezala ipini behar da, babes egokia lortzeko.
- Maskara aldatu:
 - ⌚ Erabili ondoren .
 - 🔄 Maskara bustitzen bada, hondatzen bada, edo aldaketaren bat izaten badu.
 - 🧻 Arnasketa gehiegi oztokatzen badu.

I. TAULA. MASKARA-MOTAK,ARRISKUAREN ARABERA.

ARRISKUA	LANA
AGENTE BIOLOGIKOAK	ARRETA-NEURRI ESTANDARRA ● Asepsia mantentzeko. ● Fluido biologikoen zipritzinak izateko arriskua duten lanak egitean. ● Hodi pneumatikoa garbitzean.
	TANTA BIDEZKO ISOLAMENDUA. ● Pazientearengandik metro bat baino gutxiagora gaudenean. ● Maskara kirurgikorik ez duten pazienteak lekuz aldatzean.
	AIRE-ISOLAMENDUA ● Gelara sartzean (denok). ● Maskara kirurgikorik ez duten pazienteak lekuz aldatzean. ● Aire bidez transmititzen diren agente infekziosoen eraginpean jar litekeela aurrez ikusten den lanetan.Adibidez: mantentze-lanetan (isolamendu-geletako iragazki-aldaketa), ikuztegia (arroparen hautaketa-tiradera), eta abar.
ZITOSTATIKOAK EDO BESTELAKO FARMAKO ARRISKUTSUAK	AEROSOLAK sor daitezkeen lanetan edo prozeduretan: ● Kabinatik KANPOKO prestaketa edo manipulazioa egitean. ● Prestaketako kabina garbitzean. ● Prestaketako kabinaren mantentze-lanak egitean, iragazkiak aldatzean. ● Aerosol moduan sistema irekian farmakoak ematean (erribobirina) ● Iraizkinak isurtzean. ● Hondakinak biltzean. ● Isurkinak biltzean.

Gas eta lurrun organikoen aurrean **GIDA HONETAN AGERTZEN EZ DIREN BESTE MASKARA BATZUK** erabili behar dira:

PRODUKTU KIMIKOAK	Gas edo lurrun kimiko arriskutsuen eraginpean egoteko arriskua duten lanak egitean, hala adierazten duenean segurtasun-datuen fitxak edo Laneko Osasuneko Zerbitzuak (OPUk), adibidez: ● Erauzketa-kabinatik kanpoko manipulazioa egitean. ● Erauzketa-kabinaren mantentze-lanak eta garbiketa egitean, iragazkiak aldatzean. ● Isurkinak garbitzean. ● Ontziak garbitzean.
-------------------	---

MASKARA-MOTA	GOMENDIO OROKORRAK
Kirurgikoa	● Ezinbesteko denboran erabili. ● Bota maskara pazientez edo jardueraz aldatzean.
Kirurgikoa	
FFP2	Jarraitu “Gaixotasun transmitigarriak dituzten pazienteentzako isolamendu-neurriak eta bestelako arreta-neurriak” protokoloaren jarraibideei. ● Erabili zehaztutako kasuetan. ● Ondo doitu aurpegiko zatia, sudurra eta ahoa erabat estaliz, mukosa-mintzak babesteko. ● Gelan sartu aurretik jarri, eta irtetean bota kanpoan dagoen edukiontzi itxira.
FFP3 EZ DIRA EGOKIAK ez maskara kirurgikoak, ez FFP2 motakoak.	Jarraitu "Medikamentu zitostatikoen eta bestelako farmako arriskutsuen protokoloa"ren jarraibideei. ● ERAGINPEAN EGOTeko ARRISKUA dagoen kasuetan bakarrik erabili. ● Ez da gomendatzen oro har FFP3 maskarak erabiltzea farmakoak ematean. Aerosolak sortzea eragozten duten praktika zehatzak aplikatu beharko dira. ● HONDAKIN ZITOSTAKOEN edukiontzira bota.

Gasentzako eta lurrunentzako iragazki ESPEZIFIKOAK dituen maskara EZ DIRA EGOKIAK ez maskara kirurgikoak, ez FFP motakoak.	● Produktu bakoitzarentzako egokia den iragazki-mota erabili behar da (ikus segurtasun-datuen fitxa). ● Galdetu Laneko Osasun Zerbitzuari (OPUri). ● Ikus 15. GIDA. Iragazkiak dauzkan maskara erabiltzeko jarraibideak.
--	--

MASKARA EGOKIENA ARRISKUAREN ARABERA

ARRISKU BIOLOGIKOEN KONTRAKO MASKARA

MASKARA KIRURGIKOA

- Asepsia mantentzeko: Osasun-langileen arnasbideetako agente infekziosoak pazientearengana heltzea saihesteko diseinatua.
- ARRETA-NEURRI ESTANDAR gisa,
 - Odolaren, gorputz-fluidoen, jariakinen eta irazkinen zipriztinak edo nebulizazioak sor daitezkeen lanetan.bv
 - HODI PNEUMATIKOA garbitzean.
- TANTA BIDEZKO ISOLAMENDUAN,
 - Pazientearengandik metro bat baino gutxiagora egon behar denean.
 - Pazientea lekuz aldatzean, hark maskara kirurgikorik ez duenean jarrita.

FFP2 MASKARA AUTOIRAGAZLEA

- AIRE-ISOLAMENDUAN.
 - Gelan sartzean beti: osasun-langileek, zeladoreek, garbitzaileek, familiartekoeak, eta abar.
 - Pazientea lekuz aldatzean, hark maskara kirurgikorik ez duenean jarrita.
- Aire bidez transmititzen diren agente infekziosoen eraginpean jar litekeela aurrez ikusten den lanetan.Adibidez: mantentze-lanetan (isolamendu-geletako iragazki-aldaketa), ikuztegia (arroparen hautaketa-tiradera), eta abar.



MASKARA ZITOSTATIKOEN ETA BESTELAKO FARMAKO ARRISKUTSUEN KONTRA

FFP3 MASKARA AUTOIRAGAZLEA

- AEROSOLEN ERAGINPEAN JARTZEKO ARRISKUA duten lanetarako bakarrik gomendatzen da:
 - Kabinatik KANPOKO prestaketa edo manipulazioa egitean.
 - Prestaketako kabina garbitzean.
 - Prestaketako kabinaren mantentze-lanak egitean.
 - Aerosol moduan sistema irekian farmakoak ematean (erribobirina eta beste batzuk).
 - Iraizkinak isurtzean.
 - Hondakinak biltzean.
 - Isurkinak biltzean.
- Ez da gomendatzen, oro har, farmakoak ematean.




MASKARA JARTZEKO ETA KENTZEKO JARRAIBIDEAK

MASKARA NOLA JARRI

Kutsatutako gunean sartu aurretik:

- 1 Ondo garbitu eskuak.
- 2 Egiaztatu iraungitze-data, eta ziurtatu maskara ez dagoela hondatuta bandetan, material iragazlean, sudurrerako klipetan, eta abar.
- 3 Jarri maskara. Babesteko elementuak ordena honetan jarri behar dira: mantala, txanoa, oinetako-babesak, maskara, betaurrekoak eta eskularruak.
- 4 Maskara behar bezala ipini behar da, babes egokia lortzeko.
 - Bizarrak eta patillek, besteak beste, ondo jartzea eragotz dezakete.
 - Betaurrekoak izanez gero, kendu egin behar dira maskara jartzeko eta doitzeko.



1. Hartu maskara bi eskuekin, sudurrerako klipa goiko ertzean utziz. Eman forma klipari, erditik pixka bat tolestuz, eta ireki maskara beheko ertzetik tira eginez.



2. Jarri maskara kokotsaren azpian, eta pasatu bi bandak buruaren gainetik.



3. Pasatu beheko banda belarrien azpitik, eta goiko banda burugainetik.



4. Moldatu sudurrerako klipa bi eskuekin, sudurraren formara egokitzeko.



5. Ondo ipinita dagoela egiaztatzeko, eutsi maskarari bi eskuekin, eta: Arnasa botatzeko balbularik gabe, bota arnasa indar handiz: maskarak sabeldu egin behar du. Arnasa botatzeko balbularekin, hartu arnasa indar handiz: maskarak barrura sartu behar du.

MASKARA NOLA KENDU

- 5 Babesteko elementuak ordena honetan kendu behar dira: eskularruak, betaurrekoak, oinetako-babesak, txanoa, mantala (barruan) eta maskara (kutsatutako gunetik kanpora).
- 6 Bota maskara horretarako jarritako edukiontzira.
- 7 Maskara kendu ondoren, ondo garbitu eskuak.